

2007ko MARTXOaren 5eko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, bi mila etazazpiko martxoaren bostean, goizeko zortziak direnean, Alkatea: Joseba Egibar Artola; Udalkideak: Patxi Ezkiaga Ormazabal, Xabier Arrese Arratibel eta Jose Antonio Imaz Insausti; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO BERRIKUSKETAKO TESTU BATERATUKO, A-2 ESKOLA EREMUKO LURREN ZESIORAKO HITZARMENA

Alkateak, hitza harturik, Lizartzako Arau Subsidiarioetako Berrikusketako Testu Bateratuko, A-2 Eskola Eremuko Lurren Zesiorako, Udala eta lur jabeen artean sinatutako hitzarmenaren berri eman du, eta literalki honela dio:

LIZARTZako udaletxean, 2007ko martxoaren 2an.

BILDUTA:

Batetik, Joseba **EGIBAR ARTOLA** jauna, LIZARTZako Alkate-
Presidente gisa.

Eta bestetik, Milagros Aizpurua Alkorta andrea, adinez nagusi eta, 15.217.897 NANA duena; Juan Carmelo Goikoetxea Goikoetxeaundia jauna, adinez nagusi eta, 72.425.671 NANA duena; Jose Maria Goikoetxea Goikoetxeaundia jauna, adinez nagusi eta, 15.870.397 Y; Nicolás Bengoetxea Altuna jauna, adinez nagusi eta, 15.218.018 NANA duena; Juana Francisca Bengoetxea Altuna andrea, adinez nagusi eta, 15.179.980-A NANA duena;

Tomasa Bengoetxea Altuna andrea, adinez nagusi eta, 15.218.020 NANA duena; Josefa Bengoetxea Altuna andrea, adinez nagusi eta, 15.218.018-E NANA duena; Jesús Maria Bengoetxea Altuna jauna, adinez nagusi eta, 15.218.017 NANA duena; Isabel Bengoetxea Altuna andrea, adinez nagusi eta, 72.509.867 NANA duena; José Antonio Bengoetxea Altuna jauna, adinez nagusi eta, 72.509.895 A NANA duena; José Ramón Bengoetxea Altuna jauna, adinez nagusi eta, 72.416.770 NANA duena; Pedro Maria Bengoetxea Altuna jauna, adinez nagusi eta, 15.878.875-C NANA duena; Maria José Bengoetxea Altuna andrea, adinez nagusi eta, 15.890.452 NANA duena; denek jakinarazpenetarako helbide gisa Lizartzako Iribarren Etxeko 2. zenbakian dutenak.

ESKU HARTU DUTE

Egibar Jaunak, LIZARTZAKO (Gipuzkoa) Udalaren izenean eta horren ordezkari gisa, horren Alkate-Presidente den heinean.

Aizpurua eta Goikoetxea jaun-andreek eta, Bengoetxea Altuna anai-arrebek, bakoitzak bere izenean, eta Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenari buruzko agiriko A.2 ZERRATEGI ALDEA Arearen jabe bezala.

Alde biek adierazi duten ordezkaritza onartu eta, horretan oinarriturik gauzatu dute Hirigintza Hitzarmen hau, honako hauek oinarri hartuta:

Egintzaren fede eman duen Udaleko Idazkaria den Ana ZABALA GARMENDIA andrearen aurrean.

Hitzarmen hau sinatzeko legezko ahalmen nahikoa dute eta dutela onartzen dute, eta horren arabera,

AZALTZEN DUTE

Lehenengoa: 2006ko ekainaren 8an, Lizartzako Udalaren Hirigintza Hitzarmen Sinatu zutela Aizpurua eta Goikoetxea jaun-andreek eta Bengoetxea Altuna anai-arrebek, Lizartzako A.2 ZERRATEGI ALDEA Arearako Arau Subsidiarioen Berrikusketari buruzko Agiriko zehaztapenak adosteko, eta berori kudeatu eta gauzatzeko.

Agiri hau sinatzen dutenak, ondoren zerrendatzen diren lur-eremuen jabe dira eta, azalduko den moduan:

BENGOETXEA ALTUNA ANAI ARREBAK:

“El terreno sembradío llamado Atariko-Soroa, de once áreas, diez centiáreas y noventa y cinco decímetros cuadrados, lindando por Este, con pertenecidos de la casa Arostegui y solar de la casa Estanga, y, además, hoy, con parcela segregada y vendida a don José Ramón Bengoetxea y otros: por Oeste con porción segregada y vendida al Ayuntamiento de Lizartza y por Norte con el río Araxes.”

MILAGROS AIZPURUA ALKORTA:

“El terreno sembradío llamado ETXEAZPIA, que, juntamente con el solar del edificio de la casería y las antepuertas, contiene treinta áreas y setenta y cinco centiáreas y linda: Norte, con terreno de la casería Estanga y de marko; Este, con la margen izquierda del río principal; Sur, con camino para dicho río; y Oeste, con camino carretil público.”

“El resto del terreno, que fue solar de la casa GASTANGAZAR, término municipal de Lizartza, que contiene siete metros cuadrados y linda: Norte, con los pertenecidos de Arostegi; Este, con los de Ostatu-Berria; Sur, con camino vecinal; y Oeste, con la porción segregada y vendida a José Urdampilleta.”

El terreno sembradío llamado ESTANGA-SOROA, sito en término municipal de Lizartza, que contiene siete áreas y quince centiáreas y linda:

Norte, con el río Araxes; Este y Sur, con terreno de Bengoetxea; y Oeste, con terrenos de Arostegi y Ostatu-Berria.”

“El terreno HUERTA, situado delante de las ruinas de la casa llamada Marko, separado de ellas por el camino, en término municipal de Lizartza, que contiene doscientos treinta metros cuadrados y linda: Norte, con terreno de Arostegi; Este, con el de las casas llamadas Betanga y Bengoetxea; Sur, con camino carretil público; y Oeste, con terreno de Betanga.”

JUAN CARMELO – JOSE MARIA GOIKOETXEA GOIKOETXEAUNDIA:

“Otro terreno también sembradío, denominado ESTANGASORO, confinante por Este, con terreno hoy de Don Domingo Iturrioz; por Sur, con el de Don Nicolás Bengoechea y de Don Domingo Iturrioz; por Oeste, con el de Don Pedro María Irarreta y Larrarte, y por Norte, con el río que baja de Navarra a Tolosa; ocupa una superficie de cinco áreas y veinticinco centiáreas.”

Bigarrena: Aipatutako hitzarmen horretako zortzigarren klausulan hitzartutakoaren arabera, eta aurreikusitako eskola-ekipamendua azkar, erabat eta behar bezala gauzatzearen alde, agiriari atxikitako fitxan jasotako A.2.3. Eskola Lurzatiari dagokion eremuaren jabetza Udalari lagatzeko konpromisoa hartu zuten A.2 Arearen jabeek, hitzarmen hori sinatu ondoren Eusko Jaurlaritzari transmititzeko.

Lurzoruaren Erregimenari eta Balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legearen 14.2. artikuluan, kontsolidatu gabeko hiri-lurzorurako aurreikusitako lege-lagapenen aurrerakina da lagapen hau, eta A.2 ZERRATEGI ALDEA Area burutzeko, Lizartzako Udalaren Plangintza Arau Subsidiarioak Berrikusteko Agirian aurreikusitako Berdinbanaketa Proiektuaren arabera gauzatuko da.

Berdinbanaketa-proiektua behin betiko onartu baino lehen lagapenaren eskritura publikoa gauzatzeko Lizartzako Udalak eskatzekotan, Jabetza Erregistroan inskribatu arte sor litezkeen

gastuak berorrek ordaindu beharko zituela onartu zen aipatutako hitzarmen berean.

Hirugarrena: Gipuzkoako Foru Aldundiako Kontseiluak, 2007ko urtarrilaren 16ko batzaraldian, Lizartzako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspenari buruzko Agiria behin-betiko onartuta, eta aurreikusitako eskola-ekipamendua egin ahal izateko, lur-eremua Eusko Jaurlaritzari lagatzeko behar ditenez, Udal hau 2006ko ekainaren 8an sinatutako hitzarmenaren zortzigarren klausulan hitzartutakoa gauzatu beharrean dago.

Horiek guztiak horrela, ondorengotan oinarritutako langapenari buruzko agiria sinatzen dute alde biek;

KLAUSULAK

Lehenengoa: Legezko ahalmena

Alde biek elkarri aitortzen diote hitzarmen hau onartu eta sinatzeko legezko ahalmena eta onustez betetzeko konpromisoa hartzen dute.

Bigarrena: Hitzarmenaren helburua

Hasierako azalpenetan deskribatutako lur-eremuen jabeek Lizartzako Udalari emanaz, Espazio Libreen Sistema izeneko eremuaren plangintzari buruzko zehaztapenak arautzea da hirigintza-hitzarmen honen helburua.

Hirugarrena: Milagros Aizpurua Alkorta andreak, Juan Carmelo Goikoetxea Goikoetxeaundia jaunak, Jose Maria Goikoetxea Goikoetxeaundia jaunak, Nicolás Bengoetxea Altuna jaunak, Juana Francisca Bengoetxea Altuna andreak, Tomasa Bengoetxea Altuna andreak, Josefa Bengoetxea Altuna andreak, Jesús Maria Bengoetxea Altuna jaunak, Isabel Bengoetxea Altuna andreak, José Antonio Bengoetxea Altuna jaunak, José Ramón Bengoetxea Altuna

jaunak, Pedro Maria Bengoetxea Altuna jaunak eta Maria José Bengoetxea Altuna andreak, hasierako azalpenetan deskribatutako A.2.2. Eskola Lurzatiko lur-eremuak Lizartzako Udalari lagatzen diote, eta hau jabe izango dela, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kontseiluak, 2007ko urtarrilaren 16ko Batzarraldian behin-betiko onartu zituen Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenari buruzko Dokumentuan Eskola Ekipamenduko Sistema Orokor gisa erabilia izan dadin.

Laugarrena: Lurzoruaren Erregimenari eta Balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legearen 14.2. artikuluan, kontsolidatu gabeko hiri-lurzorurako aurreikusitako lege-lagapenen aurrerakina da lagapen hau, eta ondorioz, Milagros Aizpurua Alkorta andreari, Juan Carmelo Goikoetxea Goikoetxeaundia jaunari, Jose Maria Goikoetxea Goikoetxeaundia jaunari, Nicolás Bengoetxea Altuna jaunari, Juana Francisca Bengoetxea Altuna andreari, Tomasa Bengoetxea Altuna andreari, Josefa Bengoetxea Altuna andreari, Jesús Maria Bengoetxea Altuna jaunari, Isabel Bengoetxea Altuna andreari, José Antonio Bengoetxea Altuna jaunari, José Ramón Bengoetxea Altuna jaunari, Pedro Maria Bengoetxea Altuna jaunari eta Maria José Bengoetxea Altuna andreari, bigarren klausulan barne hartutako lur-eremuen ordainetan, lagatako eremuaren arabera aprobetxamendua emateko konpromisoa hartzen du LIZARTZAKO udalak.

Bostgarrena: Hitzarmen honen inguruko eskritura publikoa notarioaren aurrean egin eta Tolosako Jabetza Erregistroan inskribatuko da. Udalaren ardurakoak izango dira horren ondorioz sor daitezkeen gastuak, eta delako inskripzio hori ahalik eta azkarren egiteko beharrezkoak izan daitezkeen agiri eta kudeaketa guztiak errazteko konpromisoa hartzen dute lagatzaileek.

Seigarrena: Ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzako Errege Dekretuaren -156. BOE- 303. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, izaera juridiko-

administratiboa du hitzarmen honek, eta Udalbatzak ebatzi beharko ditu sor daitezkeen arazoak, dagozkion jurisdikzio-errekurtsoak, baleude, jarri baino lehen.

Eta hala jasota gera dadin eta behar diren ondorioetarako, kontratu hau onartu eta horren bi kopia sinatu dute bertaratutakoek, goian aipatutako tokian eta egunean.

Hitzarmen honen helburua, Lizartzako Arau Subsidiarioetako Berrikusketako Testu Bateratuko, A-2 Eskola Eremuko Lurren Zesioa lortzea izan da, bertan, Eskolako Ekipamendu berria ezarri ahal izateko.

Eskola Ekipamendu berria bideratzeko, Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena sinatu behar da, beraien esku lurren disponibilitatea utziaz.

Hori dela eta, zera proposatu da:

Lizartzako Arau Subsidiarioetako Berrikusketako Testu Bateratuko, A-2 Eskola Eremuko Lurren Zesioaren Hitzarmena onartu eta, Udaleko Alkate-Lehendakaria den Joseba Egibar Artola Jaunari, Eusko Jaurlaritzarekin sinatu behar den hitzarmena sinatzeko ahalmen osoak ematea.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartu da.

3.- LIZARTZAKO HIRI ANTOLAKETAKO ARAUEN BERRIKUSPENENKO TESTU BATERATUAREN ONARPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiako Diputatu Kontseiluak, 2007ko urtarrilaren 16ko batzarraldian, Lizartzako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspen espedientea, behin betiko onartu zuen.

Erabaki horren arabera, Arauak argitaratu eta indarrean sartzeko, Udalak, erabaki horren lehen paragrafoan azaltzen diren baldintzak betetzen dituen dokumentu bat onartu behar du hiru hilabeteko epearen barruan.

Guzti hori kontutan hartuta, Teknikari Erredaktatzaileek Lizartzako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspeneko Testu Bateratua aurkeztu dute, onarpenerako.

Hori dela eta, Udal Batzarrari proposatu zaio:

- 1.- Lizartzako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspeneko Testu Bateratua-ri onarpena ematea.
- 2.- Lizartzako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspeneko Testu Bateratua, Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, onarpena emateko eskatuaz.

Lizartzako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspeneko Testu Bateratuaren onarpenari buruzko proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, gehiengo absolutuaren “quorum”arekin, aho batez onartua izan da.

4.- 2006 URTEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

ALKATETZAREN DEKRETUA

Idazkari-Kontuhartzaileak osatu duen, Lizartzako Udaleko 2006ko aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, hau

EBATZI DUT

Lehena.- 2006ko Lizartzako Udaleko Aurrekontuaren Likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

KONTZEPTUA	PARTZIALA	GUZTIRA
Diruzaintzako Izakin Likidoak 2006-12-31ean		160.677,52
Kobratu Gabeko Saldoak, 2006-12-31ean		127.397,74
Aurrekontuko Zordunak	126.036,58	
Itxitako Ekitaldikoak	-----	
Aurrekontuz Kanpoko zordunak	1.361,16	
Aplikatu gabeko kobrantzak	-----	
DENERA		288.075,26
Ordaindu Gabeko Saldoak, 2006-12-31ean		- 126.164,23
Aurrekontuko Hartzekodunak	107.186,47	
Itxitako Ekitaldikoak	8.590,00	
Aurrekontuz Kanpoko zordunak	10.387,76	
Aplikatu gabeko ordainketak	-----	
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA		161.911,03
Saldo Kobragaitzak		-----
Altxortegi-gerakin likidoa		161.911,03
Finantzaketa lotua duten gastuetarako altxortegi-gerakina		-----
Gastu Orokorretarako Altxortegi Gerakina		161.911,03

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio-espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako foru arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzarrari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

5.- 2006 URTEKO KONTU OROKORRA

2006 EKITALDIKO KONTUEN AZTERKETA ETA ONARPENA

Lehendakari jaunak hartu du hitza eta 2006 ekitaldiko Aurrekontuaren eta Ondarearen Administrazioaren kontuak aztertzeari ekingo zaiola esan du,

guztiak ere jendaurreko erakustaldian jarriak eta Kontuen Batzorde Bereziak aztertutakoak, Batzorde honek dagokion espedientean agertzen diren erregelamenduzko txostenak igorri dituelarik.

Idazkariak txosten horien irakurketa azkarra egin ondoren, eta kontu horiek erregelamenduzko ereduak betetzen dituztela eta behar besteko frogagiriak dituztela egiaztatuta, horiei buruzko informazio zabala eskuratu, eta bertaratutako jaun-andreek eskatutako azalpen guztiei erantzuna eman zaielarik, aho batez onartu egin dira.

Bertara etorritako jaun-andreei ohartarazi zaie 781/1986 Legegintza Errege Dekretuaren 460-5 artikuluari jarraiki, nolana ere, Kontu Epaitegiaren kanpo fiskalizazioaren menpe jarri behar direla eta aipatu artikuluko horren aplikazioan, kontuak onartzeagatik erabakiak, akats eta oztopoen zuzenketak hala nola okerrak konpontzeko prozedurak, betearazleak izango direla.

7.- OSTATUKO USTIAPENA

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

2004ko maiatzaren 7an, Lizartzako Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna eta Jangela-Erabilera anitzeko lokalaren adjudikazioko Administrazio Kontratuaren arabera M^a ISABEL MORENO CAMARA Andrea izan zela, lehiaketaren adjudikatzailea.

IKUSIRIK.- 2007ko martxoaren 1ean, M^a ISABEL MORENO CAMARA Andreak Lizartzako Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna eta Jangela-Erabilera uzteko asmoa agertu duela.

Hori dela eta, Lizartzako Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna eta Jangela-Erabilera anitzeko lokalaren adjudikatzeko, Kontzesio Administrazioaren Lehiaketako Baldintza Erregulatzailen Plegua aurkezten da, onarpenerako:

LIZARTZAKO GIZARTE-GUNEKO JUBILATUEN TABERNA ETA JANGELA-ERABILPEN ANITZEKO GELAREN KONTZESIO ADMINISTRATIBOAREN LEHIAKETAKO BALDINTZA ERREGULATZAILEEN PLEGUA

1. art.- Kontzesioaren xedea.

Lizartzako Udala gizarte-gunearen instalazioen jabea da, eta lehiaketa publikoa irekitzen du kontzesio administratiboa emateko asmoz, bertako taberna eta jangela-erabilpen anitzeko gelaren erabilera eta ondorioz ustiapena baimentzeko kontzesionatzaileari.

2. art.- Kontzesionatzailearen betebeharrak.

Gizarte-gunearen eta jangela-erabilpen anitzeko gelako ustiapenaren zerbitzuak, ondorengo betebeharrak dakar:

- a) Jubilatuentzako taberna eta jangelaren zerbitzurako erabiliko diren instalazio eta lanabesen garbiketa.
- b) Gizarte-gunearen gainontzeko instalazioen eta mobiliarioaren garbiketak, zehazki, bainu jeriatrikoa, egon gela, komunak, biltegia eta aldagelak.
- c) Mahaira eta egon-gelara bere kabuz kontsumizioak eraman ezin dituzten jubilatuei laguntza eman.
- d) Jangelaren uztea otorduko orduetatik kanpo iharduera anitzen erabilpenerako.
- e) Gizarte-guneko bainu jeriatrikoko eta egon gelako giltzen ardura.

3. art.- Behin behineko adjudikazioa egiten denetik urte bateko kontzesioko epea izango du, urtero luzatu ahal izango delarik bost urteko mugarekin, edozein alde hilabete aurretik ez badu denuntziatzen.
4. art.- Esleidunak, lehen urteari dagokion ustiapenaren ondorioz, Lizartzako udalari EHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI ETA HOGEI (157,20,-) eurotako hileroko kanona ordainduko dio, B.E.Z.a barne delarik. Diru kopuru hau urtero errebisatuko da, urteko K.P.I. aplikatuz.
5. art.- Ordutegia: Azarotik Apirila bitarte: goizeko 10etatik gaueko 10k arte; Maiatzatik Urria bitarte, goizeko 10etatik gaueko 11k arte gutxienez, publikoari irekita egongo da, Eusko Jaurlaritzak onartzen duen legediaren arabera ordutegi hau zabaldu daitekalarik. Asteguneko egun batean, hau da, astearte, jai egitea izango da. Urrian, astearte arratsaldea eta asteazken goize, eguerdia bitarte, jai egitea izango da. Oporrak bi astetako aldian banatu ahal izango dira, bi aste, Abuztuan bete beharko direlarik.
6. art.- Esleidunak berak zuzenean bete beharko ditu kontzesio honetan aipatzen diren lanak. Ez du inolako lan harremanik izango udalarekin, beste hainbeste dagokio kontrata lezakeen langileriarekin, honen Gizarte Segurantzako afiliazioa esleidunaren kontura izango bait da.
- Esleidunak alta eman beharko du Gizarte Segurantzako autonomoetako erregimen berezian, iharduera ekonomikoetako zergan, eta dagozkion beste zerga edo tasetan.
- Zilegi izango da titularra ordezkatzeari baldin oporreatatik edo beste arrazoi batzuegatik, baina garaiz jakinarazi beharko zaio hori Udalari.
7. art.- Bi prezio tarifa aplikatuko dira, eta denbora guztian ikusgai azalduko dira.

- a) Bata, Lizartzako 65 urtetik gorakoei aplikatuko zaie tarifa murriztua, eta honen prezioak Udala eta esleidunaren artean adostuko dira kontzesioa eman ondoren.
- b) Bestea, gainontzeko publikoari aplikatuko zaio, eta Lizartzako beste tabernetako antzekoak izango dira.

8. art.- Ondorengo gastuak esleidunaren kontura izango dira:

- Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna, Jangela-Erabilpen Anitzeko Gelako zerbitzurako ontzien konponketa eta berriketa, aparailu elektrodomestiko eta beste batzuen mantenimendu eta konponketa.
- Garbitasun, argindar, gasa, ura, zaborrak, estolderi eta sortu daitekeen beste edonolako gastuak.
- Bi urtetik behin, taberna eta jangela-Erabilpen Anitzeko gelaren pintaketa.

9. art.- Esleiduna behartuta egongo da kontzesioak dirauen denboran, zerbitzu eta garbitasun egoki bat ematen instalazio guztietan, udalak honi dagokionez ezartzen dituen arauak betez. Baita ere, establezimendu publikoetarako ematen diren osasun janariei buruzko xedapen eta arauak bete beharko ditu.

10. art.- Taberna eta Jangela-Erabilpen Anitzeko gelaren funtzionamendua, barruko ordena, zabaldu eta ixteko ordutegia, garbitasuna eta lokal eta zerbitzuen osasun baldintzei buruz udalak zaintze eta kontrol lanak egin ahal izango ditu, eta esleidunari informazioa edo behar duen dokumentazioa eskatu ahal izango dio, iharduerak sortzen dituen edozein motako beharrak betetzen diren edo ez akreditatzeko.

Nolabaiteko akatsik antzemango balitz behar den akta idatziko litzateke, eta lehen aldian idatziz oharterazioko litzaioke eta leudekeen kalteak ordaintzera behartuko litzateke, eta bigarren aldian kontratua hautsiko litzateke, esleidunak inolako eskubiderik gabe lokaletik alde egin beharko lukeelarik bertako tresnak utzirik, honek ez liokelarik salbuetsiko sortu dituen erantzunkizunei aurre egiteko.

Udalak erabakiko balu Taberna eta Jangela-Erabilpen Anitzeko gela behin behingoz edo behin betirako ixtea, esleidunak ez luke eskubiderik izango inongo motatako indemnizazio edo konpentsaziorik jasotzeko.

Lokala utziko ez balu, sortu daitezkeen erantzunkizun penaletik aparte, udalak edozein organo erabiliz, zigor edo premiamendu neurriak erabili ahal izango ditu, agindutakoa bete dadin.

11. art.- Esleidunak ezingo du hirugarren bati lagapena utzi udalaren baimenik gabe.
12. art.- Esleidunak ezingo ditu obrak egin Udalaren baimenik gabe.
13. art.- Esleiduna erantzule izango da pertsona edo gauzei sortu daitezkeen edozein kalteengatik nahiz eta iharduera udalaren jabego edo menpean egon.
14. art.- Udala behartuta dago lokala, bere instalazio eta haltzariak aseguratzen diren kopuruetan.

15. art.- Udalak kontratua salatu eta indarrik gabe utzi lezake, plegu honetan zehazten diren baldintzetatik edozein bete gabe utziko balitz.

Era berean, eska liezaioke esleidunari kontratazio honek sortarazten dituen ekonomi arloko obligazioen ordainketak eguneratuak izatea, ordaintzeke dauden zorrak dagozkien gainkargu eta guzti, premiamendu bidetik kobratu ahal izango direlarik.

16. art.- Lagapenerako zehaztu den denbora bukatutakoan amaituko da kontratua ere, eta esleiduna behartuta geratuko da alde egiteko erabili dituen lokalak eta hauei atxekitutako ondasunak utsik eta aske uztera, udala ahalmen-duta egongo delarik usketa erabaki eta egiteko.

Kontratoaren luzapenik balego, hau ere bukatu ahal izango da esleidunak errenunziazten duelako, udalari idatzi bat zuzenduz hiru hilabeteko aurrerapenarekin.

17. art.- Udalak argituko ditu baldintza plegu hauek aplikatzerakoan sortu daitezkeen zalantza guztiak eta plegu honetan aurrikusten ez diren edozein zalantzari dagokionean, udaletako kontratazio eta ondasunen erreglamenduak dituzten ebazpenen bitartez eta indarrean dauden beste xedapen batzuren bitartez arautuko da kontzesioa.

18. art.- Plegu honetan aurrikusten den lehiaketaren bitartez gauzatuko da adierazi den zerbitzu horren eleispena, eta horretan aurrikusi gabe dagoen oroako udaletako kontratazio erreglamendurako 40. artikuluko eta aplikatu daitezkeen gainerako xedapenek aginduko dute.

19. art.- Baldintza plegua eta beste aurrekinak udal bulegoetan aztertu ahal izango dira.

20. art.- Lizitazioak puntu hauek hartuko ditu kontutan:

- a) Lizartzan erroldaturik egotea baloratu egingo da, herrikoari lehentasuna emanaz.
- b) Euskaraz jakitea.
- c) Langabezian egotea baloratuko da.
- d) Famili kargak kontutan izango dira.
- e) Esperientzia profesionala antzeko lanpostuan izatea baloratuko da.

21. art.- Behin behineko garantiarik ez dute aurkezteko esleidunek.

22. art.- Behin betiko berma ehun mila (601,01,-) eurotako izango da. Berma hori udaleko kontratazio erreglamenduak aurrikusten duen bezala eratu beharko du esleidunak, lagapenaren oharterazpena egin eta hurrengo hamar egunetako epean udaleko kontuhartzaitzara eraman beharko duelarik berma eratu duela egiaztatzeko agiria. Berma horren bitartez erantzun beharko dio kontratu honetako obligazioak betetzeari.

Udaleko kontratazioa erreglamenduko arauen eta horiek alda zitzaketen ondorengo xedapenen arabera itzuliko da behin betiko berma hori.

23. art.- Proposamenak jarraitzen den ereduaren bete beharko dute:

.....jaun/anderea,bizi dena, N.A. zenbakia, ahalmen juridiko eta ihardutekoaren jabe delarik, eta jakin duenez Lizartzako Udalak deialdia egin duela Gizarte-gunearen taberna eta jatetxeko zerbitzua erabili eta ustiatzeko lagapen administratiboari dagokion esleipena ematearren, horretarako onartu den baldintza plegua ere ezaguturik, aipatu lehiaketan parte hartu nahi du, eta erabilpen eta ustiaketa hori aipatutako baldintzen arabera egitera behartzen du bere burua, hortik eta zuzenean edo subsidiarioki aplikatu daitezkeen indarrean dauden arautetaik sortzen diren betebeharrak eta erantzunkizun guztiak onarturik.

Lekua, data eta sinadura.

24. art.- Lehiaketan parte hartu nahi dutenek, 20 laneguneko epean aurkeztuko dituzte bere proposamenak, eta hauek Udalak aztertuko ditu. Onartutako baremoak aplikatu ondoren, kontratazio proposamena egingo du bere kasuan, eta hau Udal Plenoak onetsiko du.

Lizartzako Gizarte-Guneko Jubilatuen Taberna eta Jangela-Erabilpen anitzeko gelaren kontzesio Administrazioaren Lehiaketako Baldintza Erregulatuaren Plegua aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

7.- ALKATETZA DEKRETUAK

OBRATAKO BAIMENAK

FELIPE ARRESEIGOR LERTXUNDI – 35/2007

Eskatzailea:	FELIPE ARRESEIGOR LERTXUNDI
Obra:	Bi logeletako tarima eta ateak aldatzea

**Alkatearen dekretua
Obra egiteko baimena**

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau **ERABAKI DUT**:

Espediente honetako eskatzaileari obra txikia egiteko baimena: EMATEA.

- Behin Obrak hasi ondoren, hauek ez badira burutzen emandako informazioaren arabera eta fatxadan, egitura edo instalakuntza nagusietan eragina badute, arkitekto batek sinaturiko eta Elkargo Ofizialak ikusonetsitako proiektua eskatuko da obra baimentzeko.
- Aterazten diren hondakinak, baimendutako hondakindegia batetara eramane beharko dira.
- Obra hasteko hilabeteko epea ematen da eta obra burutzeko, hasten denetik, hilabeteko epea.

Lizentzi hau, hirugarren baten jabetza eskubidea errespetatu eta horren kalterik gabe ematen da.

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertze errekurtsoa jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen ¹ 116. artikulua eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzen-zuzenean jar daiteke, alde aurretik berraztertze errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango

¹ Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita; eta, aurkeztu, Alkateari aurkeztu behar zaio.

ONIK SISTEMAS DE ELEVACIÓN S.L. – 57/2007

Eskatzailea:	ONIK SISTEMAS DE ELEVACIÓN S.L.
Lanen helbidea:	IRUNZUBI INDUSTRIALDEA, 7
Lanen deskripzioa:	7 a-b-c-i-j-k Eraikinak Egokitzeko Egitasmoa

DEKRETUA Obra baimena

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau **ERABAKI DUT:**

Espediente honetako eskatzaileari obrak egiteko baimena, **EMATEA.**

Obra egiteko baimenak balioa izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- 1.- Behin lizentziari dagozkion tasak eta lizentzia indarrean sartzen denean, obrak hasi aurretik erreplanteo akta egingo da obra zuzendaritza, jabetza eta Udal Teknikaria ere bertan egon beharko direlarik. Akta honen xedea, eraikuntzaren kokaera eta neurriak egoki izango direla ziurtatzea da. Jadanik eraikita dagoenez, eraikitakoa konprobatu beharko da.
- 2.- Obrak amaitutakoan, Lehen Erabilera tramitatu beharko da Udalean, eraikin berria erabili ahal izateko baimena eskuratzeko. Honetarako, Instalakuntza guztien Industriako Ikusonetsia eta Gas, Argindar eta Ur Hornikuntzetako altako boletinak, argazkiak, Obra bukaerako ziurtagiria (jadanik aurkeztuta) eskriturak ekarri beharko dira. (U-4 inprimakia ere beteta ekarriko da).
- 3.- IGOKA espedientea egin beharko da jarduera baimena eskuratzeko.

4.- Ez da lehen erabilera baimenik emango aktibitateari dagozkion tramiteak amaituta ez dauden bitartean.

Baldintza Orokorrak

1.- Jabetza-eskubidea kontuan hartu gabe ematen da baimena. Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, baimenduna ezingo da baimenaz baliatu eragindako kalteen erantzukizun zibila alderatzeko edo bere gain ez hartzeko.

2.- Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun-neurriak bete behar dira.

3.- Baimentzen diren obren inguruan, komunikazio hari, ur sare edo beste inolako zerbitzu publiko instalakuntzarik egongo balitz, obren berri eman beharko da, Zerbitzu Publikoari kalteek aurrezaintzeko; obregatik, kalterik gertatuko balitz, ukitutako hirigintz elementuek berregin beharko dira, tokatzen diren gastuak ordainduaz.

4.- Obrak, aurkeztu eta onartutako ejekuzio proiektuaren arabera burutuko dira,

Inolako aldaketarik sartu behar balitz, aurrezko adostasuna beharko du.

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertzeko errekurtsioa jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsioaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen 116. artikulua eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzen-zuzenean jar daiteke, aldez aurretik berraztertzeko errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

MARTIN MENDIA ALTUNA – 70/2007

Eskatzailea:	MARTIN MENDIA ALTUNA
Lanen helbidea:	LARTZALDE AUZOA, 11 – 1.A – LARDI BERRI ETXEA
Lanen deskripzioa:	ZORUA ALDATU, BAINUGELA BERRITU ETA UR ETA ARGI INSTALAZIOAK BERRITU

Alkatearen dekretua Obra egiteko baimena

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau **ERABAKI DUT**:

Espediente honetako eskatzaileari obra txikia egiteko baimena EMATEA.

Behin Obrak hasi ondoren, hauek ez badira burutzen emandako informazioaren arabera eta fatxadan, egitura edo instalakuntza nagusietan eragina badute, arkitekto batek sinaturiko eta Elkargo Ofizialak ikusonetsitako proiektua eskatuko da obra baimentzeko.

- Ateratzen diren hondakinak, baimendutako handakindegia batetara eramane beharko dira.
- Obrak hasteko hilabeteko epea ematen da eta obra bukatzeko hiru hilabeteko epea.

Lizentzi hau, hirugarren baten jabetza eskubidea errespetatu eta horren kalterik gabe ematen da.

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka

berraztertzeke errekurtsua jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen¹ 116. artikulua eta hurrengoan arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsua zuzen-zuzenean jar daiteke, aldeztu aurretik berraztertzeke errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita; eta, aurkeztu, Alkateari aurkeztu behar zaio.

JOSUNE ZUBELDIA ETXEBERRIA – 116/2007

Eskatzailea:	JOSUNE ZUBELDIA ETXEBERRIA
Lanen helbidea:	PLAZA SORO, 4 A
Lanen deskripzioa:	ETXEAN TXIMINIA JARTZEA

Alkatearen dekretua Obra egiteko baimena

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau **ERABAKI DUT**:

Espediente honetako eskatzaileari obra txikia egiteko baimena EMATEA.

Aipatutako etxea babes ofizialekoa denez, eta bertan burutu nahi diren obrak babes ofizialeko araudiari dagokionez baimengarriak diren jakiteko, beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzaren baimena. Ekarrutako baimena 2005ekoa den arren, araudia aldatu ez denez, baliogarritzat jotzen da.

Behin Obrak hasi ondoren, hauek ez badira burutzen emandako informazioaren arabera eta fatxadan, egitura edo instalakuntza nagusietan

¹ Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

eragina badute, arkitekto batek sinaturiko eta Elkargo Ofizialak ikusonetsitako proiektua eskatuko da obra baimentzeko.

- Ateratzen diren hondakinak, baimendutako handakindegia batetara eramane beharko dira.
- Obrak hasteko hilabeteko epea ematen da eta obra bukatzeko hiru hilabeteko epea.

Lizentzi hau, hirugarren baten jabetza eskubidea errespetatu eta horren kalterik gabe ematen da.

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertzeko errekurtsioa jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsioaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen¹ 116. artikulua eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa zuzen-zuzenean jar daiteke, alde aurretik berraztertzeko errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita; eta, aurkeztu, Alkateari aurkeztu behar zaio.

M^a JOSE ZABALA OTERMIN – 120/2007

Eskatzailea:	MARIA JOSE ZABALA OTERMIN
Obra:	Bi etxetarteko balkoia itxi egin nahi da. Edo bestela, gaur egun dagoen uralita kendu eta berria jarri
Lekua:	Toki Alai Etxea, 6 – 2.a ezka

Alkatearen dekretua Obra egiteko baimena

¹ Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau **ERABAKI DUT**:

Espediente honetako eskatzaileari obra txikia egiteko baimena: EZ EMATEA, arrazoi hauengatik:

2007ko urtarrilaren 14an, Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikusketa dokumentuak, behin betiko onarpena jaso zuen.

Arau hoietan, Txirrita Gudariaren Plaza, 6 zenbakian egun dauden hegalkien itxitura ez dago baimenduta.

Bere kasuan fatxada baten eraberritze orokorrean planteatuko balitz aztertzea izan zitekeen, beti ere fatxadaren baldintzak hobetzeko helburuarekin. Kasu honetan, proposamen indibiduala izateaz gain, kokaera kontutan hartuta, ez da egokia ikusten.

Bestetik, egun dagoen uralitazko teilatua prekariora da eta eraikina desitxuratzen du. Uralitazko teilatu hori fatxadaren txukuntasuna kontutan hartuta, kendu egin beharko da.

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertze errekurtsoa jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen¹ 116. artikularen eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzen-zuzenean jar daiteke, alde aurretik berraztertze errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita;

ERAKUNDEEI LAGUNTZAK

¹ Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

LIZARTZAKO JUAN XXIII ESKOLA – 25/2007

LIZARTZAKO JUAN XXIII Eskolak, 2006ko abenduan, ikasturtearen zehar burutzen dituzten irteeratako, laguntza eskatu du.

Aurkeztutako datuak aztertu ondoren, ERABAKI DUT:

2006 urteko aurrekontuaren kargura, 1.600,00 €-tako diru-laguntza onartu eta baimentzea.

Udaleko Kontuhartzailtzari, aipatutako 1.600,00 €-tako diru-laguntza ordaintzeko agintzea.

OTSOLAR DANTZA TALDEA – 26/2007

OTSOLAR DANTZA TALDEAK, 2007ko urtarrilaren 5ean, 2007ko Otsailaren 10 eta 11an ospatuko diren ihauteriak ospatzeko laguntza eskatu du.

Aurkeztutako datuak aztertu ondoren, ERABAKI DUT:

2007 urteko aurrekontuaren kargura, 700,00 €-tako diru-laguntza onartu eta baimentzea.

Udaleko Kontuhartzailtzari, aipatutako 7000,00 €-tako diru-laguntza ordaintzeko agintzea.

NAFARROA OINEZ 2007 – 128/2007

A.P.A. ERENTZUN IKASTOLAK, 2007ko urriaren 21an Vianan burutuko den NAFARROA OINEZ 2007 ospatzeko laguntza eskatu du.

Aurkeztutako datuak aztertu ondoren, ERABAKI DUT:

2007 urteko aurrekontuaren kargura, 300,00 €-tako diru-laguntza onartu eta baimentzea.

Udaleko Kontuhartzailetzari, aipatutako 300,00 €-tako diru-laguntza ordaintzeko agintzea.

2006ko EKAINAREN 14ko OSOKO BILKURAREN AURKAKO HELEGITEA – 20/2007

ALKATETZA DEKRETUA

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 27an, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 2. Epaitegiak, Jose Antonio Mintegi Arrate Jaunak, Lizartzako Udalaren 2006ko ekainaren 14ko Osoko Bilkuraren aurkako helegitea jarri dutela, 373/06 zk.duna, adierazi dio Lizartzako Udalari.

GERTAKARIAK

- 1.- Udal honek obligazioa dauka bere ondasunak eta eskubideak defendatzearen beharrezko legezko akzioak egikaritzea.
- 2.- Oro har, Udalbatzari dagokion administrazioiko eta legezko akzioak egikaritzeko.
- 3.- Presa dagoela eta Alkate-Lehendakariari dagokio bidezko akzio administratiboak eta judizialak egikaritzea.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

- 1.- Eraentza Lokalaren Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legeko 21.1 k), 22.2 j) eta 68.1 artikulua.

Aurreko guztiak kontuan izanik, hona Alkate-Lehendakariak hartutako

ERABAKIAK

- 1.- Jose Antonio Mintegi Arrate jaunak ezarritako 373/06 administrazioarekiko auzi-helegitean alderdi demandatu gisa bertaratzea. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko 2. Auzi Epaitegian ari da bideratzean.
- 2.- Abokatu-lana, ALEJANDRO CASTRO UBETAGOIENA abokatuari bidaltzea, aipatutako helegitean Udal honen interesak defenda ditzan. Abokatu hori ISABEL MARIN CANO eta ALBERTO ARENAZA ARTABE Prokuradoreaz balia daiteke. Udal honek prokuradore horiei auzitan aritzeko ahalorde orokorra eman baitie.
- 3.- Hurrengo Udalbatzan erabaki hauen berri ematea eta, bidezkoa bada Udalbatzak erabakia berrestea.

CONCEPCIÓN GOIKOETXEA URREAGA – 28/2007

ALKATETZAREN DEKRETUA

IKUSIRIK.- Concepción Goikoetxea Urreaga andreak eta Francisco Olaetxea Karrera jaunak, Udal honen aurrean 206ko abenduaren 11an aurkezturiko salaketa, Idoia, Gurutze eta Jon Ander Obineta Olaetxea anai arreben aurka Kale nagusia 17an duten tegian burutzen diren jarduerak direla eta.

IKUSIRIK.- 2006ko abenduaren 27an, udal-arkitektuak emandako txostena.

GERTATURIK.- Aipatutako txostena horretatik baieztatzen dela Lizartzako Kale Nagusiaren 17. zenbakiko tegian Obineta-Olaetxea anaiek sukalde bat dutela eta bertan, ere, berezko ke irteera independentea duen erretegia daukala, eta tegiak eskilara pribatu baten bidez zuzeneko lotura duela goiko solairuko etxebizitzarekin.

GERTATURIK.- Aipatutako tegiak, tegi komertzialeko izaera duela eta ez duela garaje izateko baimenik, eta bertan ez dagoela jarduera espedienterik tramitatua.

GERTATURIK.- Behin behineko onarpena duen Lizartzako Arau Subsidiarioen berriskusketa dokumentuaren arabera, Kale Nagusiko behe oineko tegietan, erabilera komertziala, garajeko erabilera eta etxebizitza (beti ere goiko solairuko etxebizitzari lotuta eta inoiz ez etxebizitza independentea osatuz) erabilera baimendu ahal izango direla.

GERTATURIK.- Tegian egiten den erabilera “txoko” baten erabilera dela, hau da, etxebizitza erabilerarekin bateragarria, pribatua eta ez komertziala, eta garajetako erabilerarekin bateraezina dela, eta beraz, debekatuta, etxebizitza lotu nahi bazaio, bi erabilera hauek eremu berdinean bateraezinak direlako.

GERTATURIK.- Erretegari dagokionez, etxea egurrezko egitura duenez, ondorengo babes neurriak hartu beharko dituzte:

1. Sua hartzeko arriskurik ez duen materialez inguratuko da, nahiz lurrean, naiz sabaian) eta gertu, su itzalgailu bat kokatu beharko da.
2. Egur metaketa suaren hedadura saihestuko duen edukiontzi batean egongo da.

KONTUAN IZANIK.- Aurreko adierazpenak, jarduera tramitatzea ez da beharrezkoa, baldin eta erabilera komertzialek edo garajeetako erabilera ematen ez den bitartean.

Guzti hori kontuan izanda, **EBATZI DUT:**

Lehenengo: Idoia, Gurutze eta Jon Andere Obineta Olaetxea anai arrebek Kale Nagusia 17an duten tegian burutzen den txoko jarduera dela eta, jarduera baimena ez dela tramitatu behar, eta ondorioz, Concepción Goikoetxea Urreaga andreak eta Francisco Olaetxea Karrera jaunak aurkeztutako salaketa ez izapidatzea.

Bigarren: Erretegiari dagokionez, etxea egurrezko egitura duenez, ondorengo babes neurriak hartu behar dituzte:

1. Sua hartzeko arriskurik ez duen materialez inguratuko da, nahiz lurrean, naiz sabaian) eta gertu, su itzalgailu bat kokatu beharko da.
2. Egur metaketa suaren hedadura saihestuko duen edukiontzi batean egingo da.

Hirugarren: Interesatuari ebazpen honen berri ematea eta jakin araztea ebazpenak administrazio-bidea bukatzen duela eta horren kontra jarri ahal izango dela –bere kasuan, aurretik, Udal honen aurrean eta, jakinerazpenaren hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epean aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ondoren-, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Donostiako Administra-zioarekiko Auzietako Epaitegiaren aurrean, jakinerazpenaren hurrengo egunetik hasita, bi hilabeteko epean.

CONCEPCIÓN GOIKOETXEA URREAGA – 31/2007

ALKATETZAREN DEKRETUA

IKUSIRIK.- Lizartzako udalak, 2006ko azaroaren 20an emandako Ebazpena, non, Concepción Goikoetxea andreari, Kale Nagusiaren 17. zenbakiko eraikinean, ezkerreko etxabea, ehungintza iharduera legeztatze, hilabeteko epea ematen zitzaion, horretarako, teknikari eskudunak idatzitako eta bisatutako egitasmoa eta deskripzio memoria aurkeztu behar zituelarik, ihardueraren

ezaugarriak zehaztu, kokatzen den ingurunea eta bertan izan dezakeen eragina deskribatu, eta proposatzen dituen neurri zuzentzaileak azalduz.

GERTATURIK.- Emandako 10 egunetako epean, udal aurrean alegazioak aurkeztu dituela, esanez, espedientearekin jarraitu ahal izateko, salaketa jarri zutenek beren jabetza tituluak, jabetza erregistro, katastro eta erroldaren ziurtagiriak, aurkeztu behar dituztela.

GERTATURIK.- Iharduera legeztatzeko hilabeteko epea, pasa dela, Goikoetxe andreak udalaren aurrean, inongo egitasmo aurkeztu gabe.

KONTUTAN IZANIK.- Legeztatze espedientea izapidetzeko, ez dela beharrezkoa salaketa jarri duten pertsonak bere jabetza frogatzea, Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorraren 65. artikulua araberak Alkateak jakiten duenean iharduera bat dagoela behar diren baimenak izan gabe, eta iharduera legeztatzeko modua egongo balitz, ihardueraren titularrari eskatuko diola bere egoera legeztatzea dezan, horretarako epe bat emanaz.

KONTUTAN IZANIK.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/63 Legearen 8.2 c) artikulua araberak herritarren parte-hartze printzipioaren arabera, edozein herritar legitimazio berezirik behar izan gabe, bidezko diren akzioak erabili ahal izango ditu, hala administrazio bidean, nola auzi bidean, herri administrazioei nahiz subjektu pribatuei hirigintzako legeria eta plangintza bete dezaten exijitzeko.

Guzti hori kontuan izanda, **EBATZI DUT:**

- 1.- Concepción Goikoetxea andreak egindako alegazioak ezetsiz, bere iharduera legeztatu dezan beste hilabeteko epea luzatzea, ohartaraziz, epe hori pasatu ondoren, iharduera ixteko agindua emango dela legeztatzeke egitasmorik aurkezten ez badu, edo aurkezten badu ere, proiektua legeztatu ezin bada.
- 2.- Interesatuari ebazpen honen berri ematea eta jakin araztea ebazpenak administrazio-bidea bukatzen duela eta horren kontra jarri ahal izango dela –bere kasuan, aurretik, Udal honen aurrean eta, jakinerazpenaren hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epean aukerako berraztertzeke errekurtsioa jarri ondoren-, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiaren aurrean, jakinerazpenaren hurrengo egunetik hasita, bi hilabeteko epean.

ONIK SISTEMAS DE ELEVACIÓN S.L. 55/2007

ALKATETZAREN DEKRETUA

IKUSIRIK.- Onik Sistemas de Elevación S.L.k, aurkeztutako, Irunzubi Industrialdeko, 7 a-b-c-i-j-k Industria eraikinerako eraikitze proiektua, obratuko udal baimena eskatuaz.

IKUSIRIK.- Proiektua aztertu ondoren, Udaleko Arkitekto Aholkulariak luzatu duen txostena, non agertzen den, eraikin horretan tarteko solairua eraiki dela.

KONTUTAN HARTUAZ.- Jose Ignacio Galarraga – URBA UTE-rekin 2004ko otsailaren 27an sinatutako hitzarmenaren 4. artikularen azken paragrafoan, honela diola:

Hitzarmen honetan finkatutako hirigintza aprobetxamenduak ez du jasotzen tarteko solairuetan eraikigarria den azaleraren likidazioa. Likidazio hori onartutako obra proiektuen arabera izango da, eta

guztiak espediente bakoitzean eraikitzen den azalera adierazi beharko dute. Kasu horietan, irabazizko aprobetxamenduaren %10eko balioa horiek eraikitzean udaleko teknikariek indarrean dauden legeen arabera ezarritako balioespenaren arabera finkatuko da.

KONTUTAN HARTUAZ.- Udaleko Arkitekto Aholkulariak eginiko baliospenaren arabera, aprobetxamendu horren %10aren balioa, 10.798,40 €-takoa dela.

Guzti hori kontutan hartuaz, zera ERABAKI DUT:

1.- Udaleko Arkitekto Aholkulariak eginiko baliospena onartu eta Onik Sistemas de Elevación S.L-ri, 10.798,40 €-tako kopurua udalari ordaintzeko eskatzea, aurreago aipatutako hitzarmenaren 4. artikulua dioena beteaz.

Ordainketa hori, Udalaren izenean, KUTXAn dagoen, 2101.0053.75.0002206308 zenbakidun kontuan egin beharko da; ordainketa egiteko azken eguna: 2007ko otsailaren 23.

Era berean, jakinaraztea, errekurso nahiz erreklamazio hauek aurkez daitezkeela:

1.- Berraztertze errekurtsoa jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko diru-erreklamazioaren aurretik, kitapen honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasi eta 15 egun barru; eta Alkateari aurkeztu behar zaio.

Administrazioarekiko diru-erreklamazioa zuzen-zuzenean jar daiteke, alde aurretik berraztertze errekurtsorik jarri gabe, kitapen honen

jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasi eta 15 egun barru; eta, aurkeztu, Gipuzkoako Foru Diputazioko Administrazioaren Ekonomia Auzitegiari aurkeztu behar zaio. Erreklamazioaren aurretik berraztertze errekurtsoa jarri izan bada, beronen erantzunaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasi eta 15 egun barru, aurkeztuko da beste hura.

GARAIKOETXEA JAUREGI ANAI-ARREBAK – 84/2007

ALKATETZAREN DEKRETUA

GARAIKOETXEA JAUREGUI anai arrebak, Kale Nagusia, 12ko eraikinean jabetza horizontaleko banaketa egiteko, 2007ko otsailaren 2an eskaria aurkeztu du; horren bidez, aipatu eskatzaileak, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen du.

2007ko urtarrilaren 14an, Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikusketak dokumentuak, behin betiko onarpena jaso zuen. Dokumentu honetan, Eraikina kontsolidaturik geratzen zen egungo erabilera eta probetxamenduarekin.

A-4 fitxan etxe horrek behe oina, bi solairu eta teilatupea dituela adierazten da eta egun bertan bi etxebizitza daudela.

Proposatutako zatiketak eta erabilerak bat datozen indarrean dagoen araudiarekin, jabetza horizontaleko banaketa egiteko BAIMENA EMATEN da.

AGUSTIN GOIKOETXEAUNDIA PAGOLA – 118/2007

ALKATETZAREN DEKRETUA

AGUSTIN GOIKOETXEAUNDIA PAGOLA Jaunak, NAN 72.509.873 G zenbakidunak, Lizartzako, Goikoetxeaundia baserrian helbidea duenak, 2007ko otsailaren 7an eskaria aurkeztu du; horren bidez, aipatu eskatzaileak, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen du, bere jabetzakoak

diren, Apeztegia Baserriari dagokion 1. Poligonoko 490 partzela zenbakia duen eta, aurreago aipatzen den lur zatia banantzeko:

1.- "Terreno sembradío llamado ARRAMPA de 835,43 m² que linda: Norte, Carretera N-135; Sur, río Araxes; Este parcela segregada e incluida en el sector industrial U-1 de Lizartza; y Oeste, con el río Araxes".

Bere jabetzako partzeletatik zati hori banandu, ondoren, Bazurka Systems For Lanfilling S.L.-ri saldu ahal izateko. Partzela hori Irunzubi Industrialdeko lurri erantsiko zaio.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinaren Erregelamenduaren 1. Artikuluaren gaineko Testu Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketak ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, eta uztailaren 4ko 1093/1997 Errege Dekretuaren 78. artikuluan agindutakoa betetzeko asmoz (horren bidez Erregelamenduarekiko Arau Osagarriak onartzen dira Jabetza Erregistroan hirigintza-izaerako egitateen izen ematearen gainean Hipoteka Legea gauzatzeko), erabaki da Segregazioa egiteko BAIMENA EMATEA.

UDAL ZERGEN ONESPENA – ZABORRA – 37/2007

ALKATEAREN EBAZPENA

Joseba Egibar Artola, Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2007ko Urtarrilaren 19-an, ondorengo EBAZPENA luzatu du:

EBAZPENA.- 2006-ko 4. Hiruhilabeteari dagokion Zaborraren Zergaren errolda iadanik egina dago alta eta baja guztiak eguneratu ondoren. **Denetara 334 errezibo dira eta kobratu beharreko kopurua, 4.437,00 €**

Beraz, espediente osoa ikusirik eta kontutan izanik, bere aurrean ERABAKI DUT:

2006 URTEKO 4. HIRUHILABETEKO ZABORRAREN ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA

Ebazpen hau behin-betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, beronen aurka Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazio Liskarretako Salan, iragarki hau argitara ematen den hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, aldez aurretik udaletxeari adierazita legeak, Herri Administrazioen Lege Arauei eta Administrazio Ihardunbide Arruntari buruzkoak, 110.3 artikuluan dioen bezela.

UDAL ZERGEN ONESPENA – URA – 38/2007

ALKATEAREN EBAZPENA

Joseba Egibar Artola, Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2007ko Urtarrilaren 19-an, ondorengo EBAZPENA luzatu du:

EBAZPENA.- 2006-ko 4. Hiruhilabeteari dagokion Uraren Zergaren errolda iadanik egina dago alta eta baja guztiak eguneratu ondoren. **Denetara 294 errezibo dira eta kobratu beharreko kopurua, 5.118,56,00 €**

Beraz, espediente osoa ikusirik eta kontutan izanik, bere aurrean ERABAKI DUT:

2006 URTEKO 4. HIRUHILABETEKO URAREN ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA

Ebazpen hau behin-betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, beronen aurka Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazio Liskarretako Salan, iragarki hau argitara ematen den hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, aldez aurretik udaletxeari adierazita legeak, Herri Administrazioen Lege Arauei eta Administrazio Ihardunbide Arruntari buruzkoak, 110.3 artikuluan dioen bezela.

UDAL ZERGEN ONESPENA – IBILGAILUEN ZERGA – 129/2007

ALKATEAREN EBAZPENA

Joseba Egibar Artola, Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2007ko Otsailaren 27-an, ondorengo EBAZPENA luzatu du:

EBAZPENA.- 2007 Urteari dagokion Ibilgailuen Zergaren errolda iadanik egina dago alta eta baja guztiak eguneratu ondoren. **Denetara 459 errezibo dira eta kobratu beharreko kopurua, 40.482,40 €.**

Beraz, espediente osoa ikusirik eta kontutan izanik, bere aurrean ERABAKI DUT:

2007 URTEKO IBILGAILUEN ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA

Ebazpen hau behin-betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, beronen aurka Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa aurkeztu

ahal izango dute interesatuek, Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazio Liskarretako Salan, iragarki hau argitara ematen den hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, aldez aurretik udaletxeari adierazita legeak, Herri Administrazioen Lege Arauei eta Administrazio Ihardunbide Arruntari buruzkoak, 110.3 artikuluan dioen bezela.

8.- BESTELAKOAK

Alkateak, hitza harturik, mozio hau aurkezten du, onarpenerako:

Euskal herritarrek emandako aginteari modu arduratsuan aurre egiteagatik, Ibarretxe lehendakaria kriminalizatuta, botere judizialak esparru politikoa inbaditu izanak eragindako politikaren muturreko judizializazioak atsekabetuta, Lizartzako udalak, "Euskal Erakundeen Alde" ekimenarekin bat eginaz honakoa adierazi nahi du:

- 1.- Instituzio politikoei eta herritarren borondatearen ordezkari zuzenak direnei dagokien funtzioa mugatzea bilatzen duen justiziaren politizazioa salatzen nahi dugu, eta gure laguntasunik sendoena eta irmoena adierazi nahi diogu Lehendakariari, bere kontra Euskal Herriko Auzitegi Gorenak ireki duen zigor kausaren aurrean. Honek, bere oinarritzko eskubideak eta gure Herrian eman beharreko ekimen politikoa zuzentzeko duen ardura instituzionala ezereztu nahi ditu.
- 2.- Politika egiteko eskubidea aldarrikatu nahi dugu, judizializazioaren mehatxurik gabe; elkarrizketa, eztabaida eta jardura instituzional eta politikoa ezin baitira inoiz legez kanpokoak izan eta, are gutxiago, delituzkoak, arazoei konponbide zuzenak emateko.
- 3.- Jakin badakigu larria dela justiziak demokraziaren zutabeen kontra, politika jardura egiteko eskubideen kontra eta gure instituzioen balorearen kontra eragindako erasoak; ondorioz, **Lehendakariaren kontra irekitako zigor kausa arrazoi gabea berehala ixtea exijitu nahi dugu.**

Akordio horren berri Euskal Herriko Auzitegi Gorenaren Presidenteari eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Presidenteari emango zaie.

Alkateak aurkeztutako mozioa aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, goizeko zortzi t'erdia direnean.